

TXOMIN JAKA KORTAJARENA

1906 urtea aberatsa izan zan, urte argia, euskal literaturan ezagutuko ziran maisuen sortzetan.

Urte aretakoak doguz, Iñazio Berakoetxea, "Aita Eustasi", bilbotarra.

Plazido Mujika, urnietatarra, euskal iztegi mamitsu eta ugarien gertutzaille eta idazlea.

Juan Thalamas Labandibar, beobitarra, Pikabea eta Fagoaga ospetsuekin batean "Gernika" aldizkariaren sortzaillea.

Balendin Enbeita Goiria, muxikarra, Kepa "Urretxindorra" zanaren seme bertsolari txapelduna.

Joakin Zaitegi, arrasatearra, olerkari saritua eta bere sormeneko "Euzko Gogo" bitartez olerkarien kandela biztuta zaintzea lortu ebana.

Erramon Murua, ordiziarra, euskal idazle zuur eta itzultzaille trebea.

Gallastegi tar Kauldi, Bilbao'ko San Anton'go eleiz buru argi, biozkor eta adoretsua. Elorriotarra,

Iñaki Barriola donostiarra, osagille argi eta euskal antzerkien idazle bikaiña.

Eta Martiaren 27'an bere sorterri izan zan Berastegi'n azken agurra egin dautsagan Txomin Jaka-Kortajarena.

Larogei ta zazpi urte jaio zirala, batzuk beteta, besteak aurten urteak beteteke. Euretatik bat edo beste bizi da. Baiña geienak agur egin euskuen.

Azkenak, "don Txomin'ek" egunotan.

Txomin Jaka-Kortajarena abade izan zan. Ñabarrete'n egoan guda sortzean. Gero "Araba" gudataldeko mutillen zaindari. Eta gero... askoren bidea, erbestea eta urandiak igaro ta Ameriketara. An batetik bestera ibili, Argentinan geratu eta ango Monez Cazon erri beartsu bat aukeratu bere lanetarako. Lan eta lan bertan, bizirik ez eukan erritxo aretan, erria fedean sendotu eta giza bidean aukera barriak erakusten. Gaur, Txomin'eri esker eta berak erakutsita, erri a erle zaintzatik bizi da eta bertakoak ezin dabe aztu euskai abadeak eurei egin eutsen era guztietarako mesedea.

Txomin'en gazte aroko euskal olerkiak ezagunak dira. Bat aipatzeko "Amandrearen ollo aldra" bizi bizia.

Ameriketa'n ez eban bastertu euskerarik. An euskeratu eban eta argentinarak biotzez eskertu eutsen, eurentzat 1872 urtean Jose Hernandez'ek argitaratu eban Martin Fierro'ren epepeia gogoangarria, "Matxin Burdin" euskal deitueagaz.

An argitaratu eban baita Euskera Erdera iztegi bat.

Txomin'en ardura zan beti euskerarentzat ez dagola itzulpenerako eziñekorik eta origaitik euskeratu zitun lan sakon batzuk. Esateko RH ezezkorra euskaldunetan'eta abar, eta Erleei buruzko liburu mardul bi idatzi.

Igazko urtea osasunez makal asi eban, biotzeko abaila geiegian abiazi yakolako; alaz eta adorez idatzi eustan: "Or dezute Saralegiren Ñaparroako guda edestia, benetan illeak erlazten dituan edestia, Orain Arabakoa zuzenduxe dut irarkoletatik eta ori bukatuta zuenari ekingo diot, Españako espetxe guztietako

edestia, eta orrela ikusieren dute gure ondorengo gazteak guk nola iokatu genduen eurek arabide ori artzeko. Orrela anai gudaren lau erkietako edesti bikaiña, eskuetan izango dute ondorengoak".

Beste liburu bat, ederra bera, "Bizitzan Bi Goiasmo" berak euskeraz idatzia, erderaz jarri eta eurei bialtzeko eskatu eutsen Argentinako bere eleiztar izan ziranak. Zertarako? Ain zuzen Txomin berberak asitako zarren gaxotegien etxeondoa amaitu nai ebelako ortik atarateko itxaropena eukan diruagaz. Eta bere kartan iñostan: "nire azken lana ori izango da Jaunak onartu duan txartela bialtzen ba dit".

Eta ain zuzen bat bateko gaixoak jo eta il danean, azken zazpi orrialde bakarrik falta zirala erderatzeko eta nok egin izentatu eta bake-baketan il zan.

Orrelakoxeak izan dira euskal idazle eta abadeak. Guk ezin ukatu eurei gure begiramen, esker on eta irakatsi jatorrik.

A. ZUBIKARAI
("Deia" egunkarian)